


Txikizkako sektoreko salmentak % 16,1 handitu dira 2021eko bigarren hiruhilekoan Euskal AEn

2021eko lehen sei hilekoko txikizkako salmenten balantzea % 7,4ko hazkundearekin itxi da

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektoreak % 16,1 handitu ditu salmentak 2021eko bigarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, egutegiaren ondorioak kenduta eta prezio konstanteetan, Eustatek osatutako datuen arabera. Sektoreko salmentak ere, gasolina-zerbitzuguneak kontuan hartu gabe, % 14,5 handitu dira 2020ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta. Bilakaera horiek kontuan hartuz, urteko lehen sei hilabeteetako salmenta metatua % 7,4 handitu da.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta urtaroen ondorioak baztertuta, 2021eko bigarren hiruhilekoko salmenta-indizea % 0,5 jaitsi da.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIt)

Sektoreen arabera, 2020ko bigarren hiruhilekoari dagokionez, prezioen eta egutegiaren ondorioak kenduta, *gainerako produktuen* salmentak % 42,2 igo dira 2021eko bigarren hiruhilekoan, eta *automobilgintzarako erregaienak*, berriz, % 37,6. *Elikadurako* salmentei dagokionez, joera kontrakoa izan da, % 5,7 jaitsi baita. Kontuan izan behar da 2020ko martxoaren 14an alarma-egoera ezarri zela COVID19aren pandemiari aurre egiteko, eta horrek txikizkako merkataritzaren sektorearen jardueran aldaketa handia eragin zituela.

2021eko lehen hiruhilekoari dagokionez, urtaroak kontuan hartu gabeko terminoetan eta prezio konstanteetan, *Elikaduraren* salmentak % 1,9 jaitsi dira. Neurri txikiagoan, *automobilgintzarako erregaia* eta *gainerako produktuen* salmentek ere behera egin dute, % 0,7 eta % 0,2, hurrenez hurren.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa. II/2021 (p)

	PREZIO FINKOAK		
	t / t-4	t / t-1	A (t) / A (t-4)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	16,1	-0,5	7,4
Araba/Álava	13,5	-0,9	9,1
Bizkaia	14,8	-0,1	6,0
Gipuzkoa	19,3	-0,9	8,7
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Elikagaiak	-5,7	-1,9	-3,7
Elikagaietan espezializatuta	2,3	0,1	0,3
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	-9,1	-4,1	-5,4
Beste produktuak	42,2	-0,2	19,0
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	30,8	2,9	7,6
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	60,9	2,3	36,7
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	40,2	-0,6	20,4
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	33,9	-0,5	12,8
Automoziorako erregaia	37,6	-0,7	15,5
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	14,5	-1,0	6,7
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE	1,0	1,6	-1,5

(p) behin-behineko datuak

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

At/A(t4) Lehen hiruhilekotik behatutako azkenekora arte metatutako aldiko urte arteko tasa (At) aurreko urtean metatutako aldi beraren aldean

Iturria: Eustat.Txikizkako merkataritzaren indizea (BMI t)

Elikaduraren txikizkako merkataritzaren barruan, prezio konstanteetan eta egutegiaren ondorioak zuzendu ondoren, *janarietan*, *edarietan* eta *tabakoan espezializatutako* merkataritzak (fruta-dendak, harategiak, arrandegiak, etab.) % 2,3 egin du gora 2020ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta. Aldiz, *janariak*, *edariak* eta *tabakoa nagusi diren* txikizkako merkataritza *ez-espezializatua* (batez ere supermerkatuak eta hipermerkatuak) % 9,1 murriztu da.

Gainerako produktuen txikizkako merkataritzan, 2021eko bigarren hiruhilekoko salmenten bilakaera positiboa izan da kasu guztietan, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta. Hala, *etxeko ekipamenduan espezializatutako* merkataritza (besteak beste, etxetresna elektrikoak, altzariak eta telekomunikazio-ekipamenduak) % 60,9 hazi da, eta *beste kontsumo-ondasun batzuetan espezializatutako* txikizkako merkataritza (liburuak, papergintzako artikulak, jostailuak eta kirol-gaiak, adibidez) % 40,2 igo da. Era berean, produktu *ez-espezializatuen* salmentek eta *pertsona-ekipamenduan espezializatutakoek* % 33,9ko eta % 30,8ko igoerak izan dituzte, hurrenez hurren.

Lurralde historikoen arabera, 2021eko bigarren hiruhilekoko salmenta-indizeak urte arteko igoera izan du lurralde guztietan: Gipuzkoan % 19,3, Bizkaian % 14,8 eta

Arabian % 13,5. Aitzitik, hilen arteko bilakaera negatiboa izan da hiru lurraldeetan: Arabian eta Gipuzkoan % 0,9 jaitsi da eta Bizkaian % 0,1.

Euskal AEn txikizkako merkataritza-sektorean 2021eko bigarren hiruhilekoan okupatutako langileen kopuruak % 1,0 egin du gora, aurreko urteko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta. 2021eko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, % 1,6 egin du gora.

INFORMAZIO-OHARRA

Koiunturazko indize ekonomiko honetan eta beste batzuetan aintzat hartutako enplegatuen artean, Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espediente (ABEEE) bati atxikitako pertsonak barne hartzen dira, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Methodology of Short Term Business Statistics](#) eskuliburuan jasotzen duen enpleguaren definizioari jarraituz.

Egutegi-efektuen zuzenketan eta serieak urtarokotasunetik ateratzeko erabilitako ereduak barne hartzen dute aztertutako aldagaietan COVID-19aren eragina, [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#) metodologia-oharrean Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) egindako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Eurei esker, lehen hiruhilekoko indizea laginaren % **94,7ko estaldurarekin** kalkulatu da —laginaren informazioa uztailean jaso da—.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62